

## MARTXOAK 4KO MOBILIZAZIOA

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuegu prozesuan zehar babesak eman diguzuen denoi eta gaur mobilizaziora batu zaretenoi. Hiru urte dira, udal-gobernuko alkateak gaztetxea lekualdatzeko ideia aipatu zigunetik, hiru urte, Zestoako Gazte Asanbladaren jarduna proiektu honetara mugatu zenetik. Hasieratik, alkateak proposatutako aldaketak asanbladan ilusio asko piztu zuen; izan ere, oraingo gaztetxea irisgarria ez izateaz gain, kontzertuak egiteko muga asko ditu: leku oso garaian dago, ez du intsonorizaziorik... eta honi, herriko alderdi politikoek Kultur Etxearekiko dituzten etorkizunerako proiektuetan gaztetxea inondik inora bertan ez dela kokatzen gehitu behar zaio, alegia; Zestoak ez du epe luzera gaztetxerik bermatuta.

Egoera hori izanik, asanbladatik lan handia egin dugu egoera egokietan aurkitzen den espazio bat lortzeko, baina bitarte honetan, Elizak eta udal-gobernuak oztopoak besterik ez dizkigute jarri. Horren adibide dira: negoziaketa aurrera eramateko hiruko mahaiak osatzeko urteak pasa beharra eta proiektua aurkeztu genuen momentutik interes gutxi jarri izana. Jarrera pasibo honen ondorioz, negoziaketak aurrera eramateko eta behin betiko soluzio bat lortzeko pausoren bat ematera behartuta ikusi ginen, zehazki; zentroa birjabetzea.

Zentroan sartu ginenean, eraikina oso egoera txarrean aurkitu genuen, eta beraz, lehenengo momentutik hau egokitzeko lanetan hasi ginen. Hala ere, lehenik eta behin espazioa bermatu behar genuela ikusi genuen eta beraz, eliza zein udal-gobernuarekin harremanetan jarri ginen. Alkateak hitz politikak eta gaztetxe berria bermatzeko bere konpromisoa adierazi zigun arren, Gotzaindegiarekin berehala harremanetan jarri ez zenez, Gotzaindegiak harremana moztu eta negoziaketak blokeatu zituen. Egoera guztiz zaildu den honetan, asanbladatik guztiz salatu nahi dugu bi instituzio hauen jarrera: batetik, Gotzaindegiaren erantzun bakarra bide judiziala hartu eta horrenbeste predikatzen duen bakearen orde, biolentzia polizialaren bidez lokalaren desalojoa eskatzea izan delako. Eta bestetik, udal-gobernuak, elizaren blokeoaren atzean jarrera pasiboa erakutsiz eta asanbladari gero eta jaramon gutxiago eginez, egoeraren blokeoa betikotu duelako.

Honez gain, lotsagarria iruditzen zaigu herriko alderdi politiko instituzionalen jarrera (EH Bildu, PNV), zeinak herrian gaztetxearekin dagoen arazoaren aurrean, ez ikusiarena egin eta honen gaineko postura publikorik agertu gabe hauteskunderi begira soilik jarrailzen duten. Egun hauetan, herrian sei gazte izan dira identifikatuak, indarkeria polizial bortitza jasan dute eta prozesu judizial bat ireki zaigunez, gaztetxe berria desalojo arriskuan dago. Beraz, Zestoako Gazte Asanbladatik, udal-gobernuari zein elizari egoera desblokeatu eta gaztetxearen auziari soluzioa orain emateko deia egin nahi diegu, biak baitira arazo honen erantzule.

Asanbladatik argi daukagu Zestoari merezi duen gaztetxea eman arte ez dugula amore emango. Zentroa, herrian egun dauden beharrei erantzuteko espazio aproposa dela ukaezina da eta era berean, Zestoako kultura aberastuko duena. Alde batetik, eragile ezberdinek

beraien jarduna oztoporik gabe gauzatu ahal izango dutelako eta bestetik, beheko aretoak herriko musika, antzerki zein bestelako kultur taldeentzat aukera paregabeak eskaintzen dituelako.

GAZTETXEA ZENTRORA